



**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, “GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA:
1999/01/01-ETIK 2005/12/31-RA ARTE EROSITAKO ARTELANEN
LEGEZKOTASUNAREN AZTERKETA ETA GUGGENHEIM
FUNDAZIOAREN JARDUERAREN FISKALIZAZIOA, 2005.”**

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Guggenheim Fundazioaren 2005eko ekitaldiaren ekonomia-finantza jarduera ez ezik, 1999tik 2005era bitarteko aldiaren artelanak erosteko prozesuan legezketasuna bete izana ere aztertu du. Txostena aho HKEEren Osokoaren kideen gehiengoarekin onetsi da.

Txostenak, hasiera batean, Museoa abian jarri eta funtzionamendurako ezarritako erakunde-sarea azaltzen du, Guggenheim Bilbao Museoa Fundazioaren eta Bilboko Arte Moderno eta Garaikidearen Museoaren Edukizitearen helburuak laburbiltzen dituela; baita, 2000ko ekitaldiaz geroztik artelanak erosteko ezarritako jarduera prozedura ere. Berebat, 2000 - 2003 eta 2004 – 2007 aldiatarako ezarritako jarduera planen laburpena barne hartu da, guztira 54 milioi euro egin dituen.

Guggenheim Museoa Fundazioari dagokionez, Epaitegiaren iritzia da Fundazioak zuzentasunez bete duela legezketasuna. Iritzi orokor honekiko bi salbuespen baizik ez ditu adierazi, zenbait gastu edo inbertsio esleitzerakoan izan den publizitate ezari buruzkoak.

Urteko kontuen iritziaren atalean, HKEEk uste du aurkeztutako kontuek egoki islatzen dutela errealitatea, nahiz uste duen Fundazioak 2002tik 2005erako aldiaren jasotako soberako diru-laguntzak Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko Foru Aldundiari itzuli behar lizkiokeela.

1999tik 2005era bitarteko urteetan gauzatutako artelanen erosketei dagokienez, HKEEk azpimarratu du ia 30 milioi euroan erositako 21 artelanez gain, Edukizitealek dohaintzetatik eratorritako beste 7 eskuratu dituela, ibilgetuan baloratu ez direnak.



Erakunde fiskalizatzaileak uste du 2000ko urtean onetsi zen obra hauek erosteko prozedura ekitaldi horretatik aurrera aztertutako erosketa guztietan bete dela eta gainera, zentzuz egin dela, gogoan izanik erosketetan interes artistikoak egin behar duela buru.

Berebat, HKEEK artelanen baloraketari buruzko beste hainbat atal zehaztu ditu, Edukiztaileak izan dituen irizpideekiko desadostasuna erakutsi duela, edo artelanen erosketarekin lotutako gastu osagarrien kontratazioarekin lotutakoak, izan ere, Herri-Administrazioen Kontratuen Legea kontu handiagoz gorde behar zukeela uste baitu.

Txostenak ondoren prozedurak hobetzeko hainbat gomendio luzatzen dizkio, bai Fundazioari, bai Edukiztaileari ere, batik bat gastu eta inbertsioak kontratatzeari dagokionez.

Azkenik, Fundazioaren eta Edukiztailearen Balantzea eta Emaitzen Kontua barne hartu dira; baita kontu horiek azaltzen dituzten hainbat atal eta 1999 eta 2005 bitartean erositako artelanen zerrenda ere, obraren titulua, egilea, erosi zeneko data eta erosketa moldea zehaztuz.